BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

1023

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren deialdia ebazten duena. Agindu horrek garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, toki-erakunde erkideei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak ematea arautzen du.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren bidez, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, toki-erakunde erkideei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei zuzendutako 2014ko ekitaldiko diru-laguntzak iragarri ziren. Aipatutako agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2014ko ekainaren 30ean (122. zenbakia).

2014ko uztailaren 31n, eskaerak aurkezteko epea amaitu zen, eta, Ingurumen Sailburuordetzak 158 eskaera jaso ditu.

2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 15. artikuluari jarraikiz, berariaz sortutako organo ebaluatzaileak diru-laguntzen eskaerak aztertu eta ebaluatu ditu, eta kasuan kasuko ebazpen-proposamena egin du, esleipen-irizpideei eta aurrekontu-mugei egokituta, eta agindu hori aplikatuta diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak, diru-laguntzen zenbatekoa, ezeztatutako eskaerak eta ezeztatzeko arrazoiak zehaztu ditu.

Deialdiaren 18.2. artikuluarekin bat, onuradunen batek uko egiten badio jasotako diru-laguntzari, ebazpenak zehaztuko du zein den lehentasun-hurrenkera, hasiera batean aurrekontu-zuzkidura faltagatik diru-laguntzarik gabe geratu diren proiektuei diruz laguntzeko.

2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 4.2 artikuluari jarraikiz, eskabiderik ez dagoelako edo betekizunak betetzen ez direlako, aipatutako jardun-lerroetako bati esleitutako diru-zenbatekoa agortzen ez bada, beste jardun-lerro bati esleitutako diru-zenbatekoari gehitu ahal izango zaio, organo ebaluatzaileak egiten duen proposamenaren arabera.

Lurzoru kutsatuen lerrorako eta biodibertsitatearen lerrorako hasierako aurreikuspenetako aurrekontu-zuzkidura ez da agortu, eta Balioespen Epaimahaiak proposatu zuen soberakin hori atmosferaren lerrora bideratzea.

Diru-laguntzak arautzeko Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, 11. artikuluan adierazitako dokumentuak aurkeztu ez dituztenei edota diru-laguntzak arautzen dituen aginduan xedatutako baldintzak betetzen dituztela justifikatu ez dutenei dokumentuak aurkezteko eskatu zaie.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren prozedura jakin batzuen tramitazio elektronikorako jarraibideak onartu zituen 2012ko azaroaren 27ko erabaki-proposamenean xedatutakoa betetzeko, diru-laguntzak arautzen dituen aginduak xedatu du bide telematikoetatik baino ez direla egingo bai diru-laguntzen eskaera bai ondorengo justifikazioa.

Galdames, Ondarroa eta Urduñako udalek uko egin diete lurzoru kutsatuen lerrorako aurkeztutako diru-laguntza eskaerei.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 90. artikuluaren arabera, interesatuak uko egin ahal izango dio bere eskaerari eta, lege beraren 91. artikuluarekin bat, Administrazioak erabat ontzat emango du ukoa.

Ingurumeneko sailburuordeak badu aginpidea ezartzeko, behin betiko, zein diren pertsona onuradunak eta zein diren eman beharreko diru-laguntzen zenbatekoak, 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 18. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Deialdiaren aginduaren 17. artikuluaren arabera, bertan araututako diru-laguntzak, Eskolako 21 Agendaren lerrokoak izan ezik, lehiaketa bidez eman behar dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluarekin bat, eta 50 puntu baino gehiago jasotzen duten proiektuen lehentasun-ordena balioespen-fasean 50 puntu baino gehiago lortu dituzten proiektu guztiak ordaintzeko nahiko aurrekontua ez dagoenean soilik hartuko da aintzat; beraz, lehenengo puntuazio altuena duten proiektuak ordainduko dira, jardun-lerro bakoitzerako dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.

Ikusirik Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Agindua, garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, toki-erakunde erkideei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak 2014ko ekitaldian ematea arautzen duena; 196/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, eta oro har aplikatzekoa den gainerako arautegia, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eranskinean jasotako entitateei diru-laguntzak ematea, eranskinean zehaztutako proiektuetarako eta zenbatekoen arabera.

Diru-laguntzak Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 22. artikuluan xedatutakoaren arabera ordainduko dira.

Bigarrena.– Uko egiteko eskaerak onartzea ebazpen honetako II. eranskinean zehaztutako entitateei, eta, beraz, eskaerei uko egin dietela deklaratzea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 91. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hirugarrena.– Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduan xedatutakoarekin bat, ebazpen honetako III. eranskinean adierazitako erakundeen diru-laguntza eskaera ezeztatzea, eranskinean adierazitako arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen honen IV. eranskinean, aurrekontu-zuzkidura faltagatik Aginduan aurreikusitako gehieneko ehunekoa hasieran eskuratu ez duten proiektuen lehentasun-hurrenkera ezartzea; era horretan, I. eranskinean ageri diren onuradunek uko egiten badiote diru-laguntzari, IV. eranskineko proiektuei ematekoa den diru-laguntzaren zenbatekoa igo ahal izango da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen bidez I. eranskinean zerrendatutako erakundeei emandako diru-laguntzen lehenengo ordainketa agintzea.

Diru-laguntzaren gainerako ordainketak jasotzeko, pertsona onuradunek egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 22. artikuluan adierazitako baldintzei jarraikiz.

Halaber, pertsona onuradunek agindu horren 20. artikuluan eurentzat ezartzen diren betebeharrak bete beharko dituzte.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea agintzea, interesatuei horren berri emateko, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 18.1 artikuluaren arabera, eta diru-laguntzak emateko prozedura orok bete behar duen publizitate-printzipioa betearaztea.

Zazpigarrena.– Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 19. artikuluaren arabera, diruz lagundutako proiektua gauzatzeko nahitaez bete behar diren baldintzen agiria onuradunei banan-banan jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen; beraz, Ingurumen, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari gorako errekurtsoa jar dakioke, ebazpena jakinarazten denetik hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 30a.

Absentziaz, (196/2013 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria),

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
ALEJANDRA ITURRIOZ UNZUETA.

I. ERANSKINA. EMANDAKO LAGUNTZAK

1.– Kutsatutako lurzoruen lerroa

Proiektua	Eskatzailea	Puntuazioa	Emandako diru-laguntza (€)
Galzar zabortegi zaharraren jarraipena eta kontrola.	Aguraingo Udala	87	4.986,00
Laudioko (Araba) 01036-00011 kokalekuko lurzoruaren kalitatearen azterketa.	Laudioko Udala	83	11.358,00
Lurzoruaren kalitatea ikertzea.	Getxo Kirolak	78	13.107,60
Sopelan (Bizkaia) dagoen 48085-00001 kokalekuko lurzoruaren kalitatearen miaketa-ikerketa xehatua.	Sopelako Udala	75	16.131,83
Lurzoruaren azterketa Jundizko mendebaldeko andeatutako lurzatian.	Vitoria-Gasteizko Udala	73	35.748,90
Olaberriko 11. Eremuan, Lurzoruaren kalitatearen ikerketa xehatua handitzea. (Zegama, Gipuzkoa).	Zegamako Udala	72	16.319,83
Zallako (Bizkaia) Avellanedako zabortegiari lotutako uren jarraipena handitzea.	Zallako Udala	72	9.735,21
Bolue hondakindegiaren ikerketa osagarria eta leheneratzea. Geoiker 48044-00023.	Getxoko Udala	71	92.881,99
Debako “Praileaitz-Pobreaitz” zabortegian gauzatu beharreko ekintza-plana.	Debako Udala	68	164.344,96
Tiro Zelai izeneko Zabortegiko lurzoruaren berreskuratzea.	Hondarribiko Udala	68	13.216,56
Lixibiatuen kontrola eta jarraipena eta drainatzeko sarearen diseinua, Atxaspin.	Ondarroako Udala	66	15.000,00
Miaketa-ikerketa Argixao futbol-zelaiari atxikitako eremuan.	Zumarragako Udala	64	18.000,00
Lantegi Eskola - Kanpaina berria: lur azpiko uren laginketa eta karakterizazioa.	Arrasateko Udala	62	1.926,90
Legazpiko (Gipuzkoa) tiro-zelaiaren zati bat estaltzeko proiektua.	Legazpiko Udala	59	4.900,50
Legazpiko 20051-00055 kokalekuko lurzoruaren kalitatearen azterketa.	Legazpiko Udala	58	3.411,90
Artxubietako zabortegi-harrobia leheneratzeko proiektua.	Usurbilgo Udala	58	13.500,00
Azpeitiko zabortegi zaharraren jarraipena eta kontrola.	Azpeitiko Udala	56	8.415,00
Larragan zabortegiaren ikerketa osagarria eta leheneratzea. Geoiker 48069-00055.	Mungiako Udala	54	28.083,56
El Arbolar Del Medio zabortegiko jarduera osagarriak.	Balmasedako Udala	54	1.219,50
Urrutxuko zigilatzearen osteko ingurumen jarraipena.	Oñatiko Udala	52,5	10.706,40

2.– Atmosferaren Lerroa

Proiektua	Eskatzailea	Puntuazioa	Emandako diru-laguntza (€)
Basauriko kartografia akustiko osoa eguneratzea.	Basauriko Udala	95	8.850,00
Arrigorriagako udalerriko zarata mapak onartzeko dokumentazioa eta ekintza-planaren dokumentua egitea.	Arrigorriagako Udala	95	5.500,00
Hernaniko Zarata Mapa estrategikoa.	Hernaniko Udala	95	8.800,00
Gernika-Lumoko zarata mapa eta ekintza plana.	Gernika-Lumoko Udala	90	8.550,00
Bermeoko Zarata Mapa eta Zonifikazio Akustikoa eguneratzea, eta Zaratari buruzko Ordenantza egokitzea.	Bermeoko Udala	90	9.000,00
Lezoko udalerriko Zarata Mapak eta portuaren eremuko azterketa zehatza.	Lezoko Udala	90	12.750,00
Ermuko udalerrian soinu-ingurunea hobetzeko ekintza-planean jasotako ekintzak abiarazteko laguntza teknikoa.	Ermuko Udala	80	14.000,00
HAPO berrikusteko azterlan akustikoa: Zarata Mapak.	Zeberioko Udala	80	6.750,00
Gizakien errausketa-labean iragazteko ekipoak instalatzea.	Bilboko Udal Merkatuak - Mercados Municipales De Bilbao	79	80.000,00
Donostiako egokitze-plana.	Donostiako Udala	78	15.000,00
CTSS autobusen berritze ekologikoa: autobus hibridoak eta mikrobusak.	Compañía Del Tranvía De San Sebastián S.A.	77	72.341,50
Udalerriko zarataren eta zonifikazio akustikoaren mapa egitea.	Lemoako Udala	75	9.240,00
Dokumentu akust.; Zarata Mapa, zonifikazioa eta ekintza plana.	Mungiako Udala	75	8.750,00
Klima-aldaketara egokitzeko udal programa prestatzea.	Legazpiko Udala	70	3.935,00
Gernika-Lumoko bidegorria gauzatzeko proiektua.	Gernika-Lumoko Udala	65	80.000,00
Ordiziako HAPO berrikusteko azterlan akustikoa: zarata mapak egitea.	Ordiziako Udala	60	7.250,00
Zarata mapa egitea Gorlizko herrigunean.	Gorlizko Udala	60	10.200,00
HAPO (hiri-antolamenduko Plan Orokorra) berraztertzeko lanen barruan, zaratak.	Lekeitioko Udala	60	1.940,00
Autobus elektrikoa martxan jartzeko proiektu-pilotua.	Compañía Del Tranvía De San Sebastián S.A.	59	20.000,00
Santa Marinako mendi-hegalak karbono-hustutegi gisa bertako landaretzaz basoberrituz leheneratzea.	Urdulizko Udala	58	47.638,58
Udalerriko lantaldeari laguntzeko ibilgailu baskulagarri elektriko bat eskuratzea.	Alegria-Dulantziko Udala	58	3.000,00
Ondarroako zarata mapa eta zonifikazio akustikoa garatzea.	Ondarroako Udala	58	6.850,00
Saratxoko Industrialderako oinezkoen mugikortasuna hobetzea.	Amurrioko Udala	57	54.319,12
Beasaingo bizikleta bide sareko ardatz nagusia egitea (1. eta 3. faseak).	Beasaingo Udala	55	80.000,00

Proiektua	Eskatzailea	Puntuazioa	Emandako diru-laguntza (€)
Aita Agirre Eskolaren birgaikuntza jasangarriari heltzeko ekintzen azterketa xehatua.	Elgoibarko Udala	55	6.000,00
Bizikletaren Gida-planaren T-1 bizikleta-ibilbidearen zati etenak lotzea.	Vitoria-Gasteizko Udala	54	53.307,76
Txomin-27. poligonoa-Martutene arteko bizikleta-ibilbideak lotzeko proiektua.	Donostiako Udala	54	53.307,76

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2015eko martxoaren 3a, asteartea
42. zk.

3.– Biodibertsitatearen Lerroa

Proiektua	Eskatzailea	Puntuazioa	Emandako diru-laguntza (€)
Mehatxatutako espezieak kontserbatzea “Gasteizko Mendi Garaiak” BGLan.	Vitoria-Gasteizko Udala	87	33.122,60
Aiako Harria-Urumea KBEen arteko haranetan biodibertsitatea kontserbatzeko ekintzak.	Hernaniko Udala	85	14.339,10
Europar Batasunaren edo eskualdearen intereseko habitat naturalak leheneratzea / hobetzea / kudeatzea.	Alkizako Udala	81	63.900,00
Artibai ibaiaren padura eta erriberak leheneratzea, Aierin.	Ondarroako Udala	73	55.639,86
Kostaldeko txilardia lehengoratzea, Deba-Zumaia tarteko itsasertzean (ES212016).	Zumaiako Udala	70	13.352,50
Atxabiribil labarraren gainean kokaturiko 193, 220 eta 221 lurzatien ingurumena hobetzea. Sopela (BIZKAIA).	Sopelako Udala	70	50.288,79
Ingurumena hobetzeko proiektu pilotua, Kanpezun.	Kanpezuko Udala	67	15.844,35
Gorbeiako Parke Naturalean (Zigoitiko aldea, Araba) anfibioak kontserbatzeko jarduerak.	Zigoitiko Udala	64	40.257,04
Barria erreka babestea.	Donemiliagako Udala	63	13.510,00
Saria mendebaldeko hezegunea leheneratzeko 2. fasea gauzatzea.	Usurbilgo Udala	63	8.120,70
Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) dagoen Martitxerrekako eta bere arro hidrologikoko habitat natural eta erdinaturala zein flora eta fauna mehatxatuak leheneratzeko eta kontserbatzeko ekintzak (Kontserbazio Bereziko Eremua ES2120017).	Hondarribiko Udala	61	13.934,90
Santa Luzia (Gernika-Lumo) eremuko ingurumena lehengoratzea. 1. fasea: hariztia-b.	Gernika-Lumoko Udala	60	10.711,13
Berrón ibaiaren erribera lehenetratzea.	Arraia-Maeztuko Udala	60	10.254,67
«Urdaibaiko ibai-sarea» KBEen hainbat eremuren ingurumena lehenetratzea eta mantentzea.	Bermeoko Udala	59	15.106,00
Deba eta Mutrikuko hezeguneak eta erreken biodibertsitatea berreskuratzeko eta kudeatzeko.	Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea - Debegesa	57	10.995,60
Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko ibaiertzetan eta ibilguetan hondakinak garbitzeko jarduerak.	Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal S.L.	55	10.094,91
Mutiloako meatze barrutiaren natura-ondarea lehenetratzea eta horren integrazio harmonikoa.	Mutiloako Udala	52	20.580,00
Astakardua (*Cirsium Vulgare*) kontrolatzea Zeanurin.	Zeanuriko Udala	52	6.750,00
Tolosaldean, landare espezie inbaditzaileen kontrolerako lanak, III. fasea (2014).	Tolosaldea Garatzen S.A.	51	34.452,60
Altube ibaiaren eta Arrola eta Al erreken ertzetan hondakinak garbitzea eta kentzea.	Orozkoko Udala	50	8.506,12
Ingurune naturalaren eta landa eremuaren kontserbaziorako ekimenak 2015-2016.	Itsasondoko Udala	50	20.764,77

4.– Eskolako Agenda 21

Proiektua	Eskatzailea	Puntuazioa	Emandako diru-laguntza (€)
Eskolako Agenda 21.	Urola-Kostako Udal Elkartea		6.154,45 €
2014-2015 ikasturtean Errenteriako Eskolako Agenda 21en dinamizaziorako aholkularitza.	Errenteriako Udala		3.665,67 €
Eskolako Agenda 21 Arrasaten: Mugikortasuna lantzen.	Arrasateko Udala		2.473,78 €
Erandioko Eskolako Agenda 21.	Erandioko Udala		3.036,23 €
Eskolako Agenda 21 Legazpi, Urretxu eta Zumarragan.	Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.		3.931,47 €
Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea Arrigorriagan, Etxebarrin, Galdakaon, Ugao-Miraballesen eta Urduñan, 2014-2015 ikasturtea.	Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal S.L.		5.236,48 €
Tolosaldeko Eskolako Agenda 21 garatzea.	Tolosaldea Garatzen S.A.		3.511,90 €
Herriko ikastetxeetan EA21 lantzeko: elikadura jasangarria.	Azpeitiko Udala		2.311,59
Eskolako Agenda XXI Getxo.	Getxoko Udala		6.455,46
2014-2015 ikasturtean, Eskolako Agenda 21 garatzeko asistentzia teknikoaren kontratazioa.	Ordiziako Udala		1.500,00
Eskolako Agenda 21, 2014/15 ikasturtea.	Sopuertako Udala		750,00
Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2014-2015 ikasturtea.	Mungiako Udala		2.552,09
Tolosako Eskolako Agenda 21en koordinazio eta dinamizazioa.	Tolosako Udala		3.619,90
Tokiko agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2014-2015 ikasturtea.	Basauriko Udala		2.968,36
Leioako udalerrian Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 koordinatzea sustatzen duten ekintzak.	Leioako Udala		4.731,56
Eskolako Agenda 21, 2014-2015.	Portugaleteko Udala		5.560,61
Eskolako Agenda 21.	Eskoriatzako Udala		825,00
Uribe Kostako Mankomunitateko Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea.	Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea		1.849,27
Eskolako Agenda 21 Amurrion, 2014-2015.	Amurrioko Udala		1.679,71
Eskolako Agenda 21eko programa dinamizatzea, 2014-2015 ikasturtea.	Irungo Udala		5.069,87
Debabarreneko Eskolako Agenda 21.	Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea-Debegesa		13.074,58
Eskolako Agenda 21 dinamizatzea Arratiako bi ikastetxetan, 2014-2015 ikasturtea.	Arratiako Udalen Mankomunitatea		2.594,44
Vitoria-Gasteizko Eskolako Agenda 21 – 2014-2015 ikasturtea: eskolako mugikortasun jasangarria, segurua eta autonomoa.	Centro De Estudio Ambientales		12.591,67
Eskolako Agenda 21.	Barakaldoko Udala		6.020,00

Proiektua	Eskatzailea	Puntuazioa	Emandako diru-laguntza (€)
Azkoitiko Eskolako Agenda, 21 2014/2015 ikasturtea. Elikadura Jasangarria.	Azkoitiko Udala		1.366,99
2014-2015 ikasturtean Eskolako Agenda 21 garatzeko asistentzia teknikoaren kontratazioa.	Beasaingo Udala		1.600,00
Eskolako Agenda 21.	Laudioko Udala		3.051,54
Eskolako Agenda 21 Bergaran kudeatu.	Bergarako Udala		2.354,40
Eskolako Agenda 21en eta Tokiko Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak, 2014-2015.	Amorebieta-Etxanoko Udala		3.173,18
Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21.	Legutioko Udala		835,69
Balmasedako Eskolako A21 koordinatzea, 2014-2015.	Balmasedako Udala		908,09
Eskolako Agenda 21: Mugikortasun jasangarria, segurua eta osasungarria hezkuntza-esparruan.	Donostiako Udala		15.000,00
Guk be bai: Gutxitu-Berrerabili-Birziklatu (GBB).	Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa		2.787,65
Bilboko Eskolako Agenda 21, 2014-2015.	Bilboko Udala		15.000,00
2014-2015 ikasturtean Oiartzungo Eskolako Agenda 21 dinamizatzeko aholkularitza zerbitzua.	Oiartzungo Udala		1.832,85
Eskolako Agenda 21.	Hernaniko Udala		2.695,32
Eskolako Agenda 21, 2014-2015 ikasturtea.	Gordexolako Udala		407,00
2014-2015 ikasturtean Hondarribiko eskoletan Eskolako Agenda 21 Programa koordinatu eta dinamizatzea.	Hondarribiko Udala		1.992,45
Itsasondoko Eskolako Agenda 21.	Itsasondoko Udala		636,50
2014-2015 ikasturtean, Oñatiko ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 programa dinamizatzeko zerbitzua emateko proposamena.	Oñatiko Udala		2.214,14
2014-2015 ikasturtean Lezoko Eskolako Agenda 21en dinamizaziorako aholkularitza.	Lezoko Udala		847,88
Lazkaoko Eskolako Agenda 21, 2014-2015 ikasturtea.	Lazkaoko Udala		1.132,23

Kutsatutako lurzoruaren lerroa

Proiektua	Eskatzailea
Los Milanos zabortegiaren azterketa osagarria. Geoiker 48074-00005.	Urduñako Udala
Berriatuko Gorozika zabortegiko lurzoruaren kalitatearen azterketa.	Ondarroako Udala
Galdamesko udalerriko (Bizkaia) Montellano Auzoko kokaleku baten ezaugarriak eta jarduera-plana (Inbentario-kodea: 48037-00007).	Galdamesko Udala

2015/1023 (15/10)

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2015eko martxoaren 3a, asteartea
42. zk.

III. ERANSKINA. BAZTERTUTAKOAK

1.– Kutsatutako lurzoruaren lerroa

Proiektua	Eskatzailea	Ukoaren arrazoia
Hobekuntza hidrologikoa Tellaetxeko mendi-hegalean.	Barakaldoko Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Sarralde - Ipeñarrietako lurzoruaren kalitatearen azterketa.	Urretxuko Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Arkatxako mendebaldeko eremuko zabortegia lehieneratzeko proiektua.	Vitoria-Gasteizko Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Larrabe Zabortegi Zaharrean kutsatuta egon daitekeen lurzoruaren Azterketa Xehatua.	Amurrioko Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.

2.– Atmosferaren lerroa

Proiektua	Eskatzailea	Ukoaren arrazoia
Argi-kutsadura murriztea Debabarrenean.	Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Azpeitiko Plaza Nagusia oinezkotzea.	Azpeitiko Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Ibilgailuen zirkulazioa erregularizatzea Urduñako hirigune historikoan.	Urduñako Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Ikastetxeetako mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko azterlana.	Plentziako Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Birgaikuntza jasangarriko udal plana.	Ugao-Miraballeseko Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
District Heating-a Zeraingo eraikinetan.	Zeraingo Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Atmosferara isurketak murrizteko, luminaria aldaketa.	Arrasateko Udala	Aginduaren 7. artikulua ez betetzea – Diruz laguntzekoa ez den gastua.
Energia kontsumoa monitorizatzea: Legarda Ikastetxea eta frontoia.	Mungiako Udala	Aginduaren 7. artikulua ez betetzea – Diruz laguntzekoa ez den gastua.

Proiektua	Eskatzailea	Ukoaren arrazoia
BEGak murriztea, ikastetxeetarako bizikleta-mugikortasunari buruzko prestakuntza emanez.	Ingurugiro Gaietarako Ikastegia	Aginduaren 7. artikulua ez betetzea – Diruz laguntzekoa ez den gastua.
Monitorizatzea, udal-energia kudeatzeko.	Andoaingo Udala	Aginduaren 7. artikulua ez betetzea – Diruz laguntzekoa ez den gastua.
Energiaren kudeaketa adimenduna eta berotegi-efektuko gasen isuriak arintzea.	Amurrio Bidean S. A.	Aginduaren 7. artikulua ez betetzea – Diruz laguntzekoa ez den gastua.
Monitorizatzea, udal-energia kudeatzeko.	Aretxabaletako Udala	Aginduaren 7. artikulua ez betetzea – Diruz laguntzekoa ez den gastua.
Haurtzaindegiaren eraikineko fatxadaren inguratzaile berria gauzatzea.	Igorreko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Arboliz Auzoko autobus geralekuko markesina.	Ibarrangeluko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Garraio publikoaren bidez, berotegi-efektuko gas-isurketak murriztea.	Leioako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Landa-bidea bidegorri gisa egokitzea: Legutioko herrigunea – Larrabea.	Legutioko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Uribe Kostako eskualdeko bizikleta-bideen sarean, Ander Deuna zatiko obrak gauzatzea.	Sopelako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Taldeko garraio ekimenak Nabarnizen.	Nabarnizko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Mugikortasun jasangarrirako Ekintza Plana 2014-2015.	Amorebieta-Etxanoko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Kudeaketa integralerako kontserbazioaren kontrol biologikorako metodoa.	Leioako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Bizikletak aparkatzeko gune pribatua eta publikoa.	Getxoko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Eroski-Ibarra lotzeko bizikleten eta oinezkoen bidea. Zallako udal-mugartea.	Zallako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Areatzako landaguneko lotura ekologikoa hobetzea, atmosferara egindako CO_2-ren isuriak murrizteko.	Muxikako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
GLP motordun orga jasotzailea.	Alegria–Dulantziko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Aldirietako aparkalekuak prestatzea.	Aguraingo Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.

3.– Biodibertsitatearen lerroa

Proiektua	Eskatzailea	Ukoaren arrazoia
Arrasateko ekosistemen zerbitzuak – Azterketa.	Arrasateko Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Asteasuko Landare exotiko inbaditzaileak errotik kentzeko proiektua (2014-2015).	Asteasuko Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Muriola hondartzaren ingurunea leheneratzea; hondartzako sarbidea eta errekaren erribera.	Barrikako Udala	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.
Bisoi europarraren habitataren konektibitatea hobetzeko,* ikus memorian.	Idiazabalgo Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Elosegi parkean, *robinia pseudoacacia* espezie inbaditzailea errotik kentzea.	Tolosako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Oianguren landa parkearen balio naturalak kontserbatu, leheneratu eta jendarteratzea II.	Ordiziako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Arno: Babes Bereziko Eremua.	Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Udal lurzatietan, Flora Exotiko Inbaditzailea errotik kentzea.	Amorebieta-Etxanoko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Urmaela leheneratzea, karpineko fauna hartzeko.	Enkarterrietako Mankomunitatea	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Lea Ibaiaren eta horren ibilbidearen mantentze- eta hobekuntza-lana.	Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Katalogatutako espezieen konektibitate ekologikoa eta kontserbazioa hobetzea – Amurrio.	Amurrioko Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Lepasoroaldea mendiko egoera ekologikoa hobetu eta biodibertsitatea babesteko proiektua.	Adunako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Erroizpeko ingurunea, paisaia eta biodibertsitatea sustatzeko proiektua.	Usurbilgo Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Calera ibaiaren ingurunea leheneratzea, Lanestosako udalerrian.	Lanestosako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.
Areatzako biodibertsitate-azterlana eta haren hobekuntzari lotutako proiektuak gauzatzea.	Areatzako Udala	Ez du lortu gutxieneko puntuazioa.

4.-Eskolako 21 Agendaren lerroa

Proiektua	Eskatzailea	Ukoaren arrazoia
Uraren inguruko sentsibilizazio kanpaina.	Busturialdeko Ur Patzuergoa.	Aginduaren 2.2. artikulua ez betetzea – Diru-laguntzaren xede diren ekintzen betekizunak.

IV. ERANSKINA. LEHENTASUN-HURRENKERA

Atmosferaren lerroa

Proiektua	Eskatzailea	Puntuazioa	Emandako diru-laguntza (€)	Gehinezko diru-laguntza (€)
Bizikletaren gida-planaren T-1 bizikleta-ibilbidearen zati etenak lotzea	Vitoria - Gasteizko Udala	54	57.907,76	80.000,00
Txomin-27. poligonoa-Martutene arteko bizikleta-ibilbideak lotzeko proiektua	Donostiako Udala	54	57.907,76	80.000,00